

irri-solas

Oiloa ala arroltzea?

Nahiak, Amaia kitzikatu nahian, erraten dio:

-Ea, zer izan da lehenik, oiloa ala arroltzea?

-Oiloa, bistan da!-erantzuten dio Amaiak.

-Ez, oker zaude Amaia! Oiloak existitu baino aise lehenago baziren arroltzeak... dinosauroenak, eta bai! Kar, kar, kar...

Nahia irriz karkailaka lehertzen da! Alabaina, arrazoi du! Zuek ere, hemendik goiti jakinen duzue galdera horri zer erantzun!



Xerka dezagun

Izenak urdinez azpimarra itzazu eta aditzak gorriz.

oroit

Izena eta aditza

- **Izena.** Bi izen mota daude: **arruntak** (letra xehez idazten dira) eta **bereziak** (letra larriz idazten dira).
Nahia (izen berezia) oiloa (izen arrunta)
- **Aditza** ekintza adierazten duen hitza edo hitz multzoa da.
*Oiloak arroltzea **errun du** (aditza).*
- Aditzak hitz bakarrekoak izan daitezke (**aditz trinkoak**), edo hitz bat baino gehiagokoak (**aditz perifrastikoak**).
*Oiloak bi pata **ditu** (aditz trinkoa).
 Oilarrak zizarea **jan du** (aditz perifrastikoa).*

Izenak eta aditzak ezagutu eta erabili**1* Izenak eta aditza. Izenak urdinez ingura itzazu eta aditzak gorriz .**

Nahia oiloa arroltzea erraten dio erantzuten dio zaude
 baziren dinosauroak galdera badakizu Amaia

2* Izen motak. Taulan sailka itzazu: bildotsa, Laida, laboraria, gasna, Leon, Mikela.

Izen bereziak	Izen arruntak

3*Izen arruntak eta bereziak lot itzazu.

Herria	◇	◇	Niko Etxart
astekaria	◇	◇	Herria
harpea	◇	◇	Asisko Urmeneta
kantaria	◇	◇	Isturitze
Idazlea	◇	◇	Arberua
erreka	◇	◇	Otsozelaia
marraskilaria	◇	◇	Itxaro Borda

Oroitz

Hiztegietan, normalean izen **arruntak** baizik ez dira agertzen:

→ erreka, marraskilari...

Entziklopedietan, berriz, izen arruntak zein **bereziak** ager daitezke:

→ Itxaro Borda, Isturitze, Otsozelaia

4* Aditzak: erranaldiak osa itzazu aditz egokia hautatuz.

zara-zuen-da-dute-daude-zen

a- "Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez.....alde egingo..."

b- Pinguinoek ezin.....hegal egin.

c- Pterodaktiloa antzinako hegaztia.....

d- Txori mota anitz

e- Parapentean (oihal-hegal) ibili otenoizbait?



5*Aditz trinkoak: hutsuneak bete itzazu hitz bakarreko aditzak erabiliz.

a- Gu ezarras ados irakaslearekin,zuk zer diozu?

b- Orain ni ezparkera, etxerako ikaslan anitz baitut.

c- Ba ote txirula jotzen? Eta tuntuna?

d- Hor.....xakurrak ausiki nau!

6*Aditz laguntzaileak: aditz zuzena hauta ezazu.

a-Ikusi otenoizbait ostruka-arroltzerik?

◇ dituzu ◇duzu ◇ zenuen

b-Ba otekaila-arroltzeak pintxoan egiteko erabiltzen direla?

◇ dakizkizu ◇zenekizkien ◇zenekien

c- Tiranosaurus Rex izeneko dinosauroak hortz ikaragarriak.....

◇ zizkion ◇du ◇ zituen

d-Ikusi al mokoak pelikano horri?

◇ diozu ◇diezue ◇ duzue

7*Aditz bereziak, aditz lokuzioak: erranaldiak berridatz itzazu.

a- bizi/ Ni/ izan/ gaztetan/naiz./ Garazin/

.....

b- duzu?/ erran/ nahi/ Zer

.....